

## FAUNA PUBLIKOA

**“Hedabideak  
aparteko lana  
egiten ari dira”**

**Carmen Martínez Castro, Rajoyren prentsa-arduraduna,  
Kataluniako jarraipenaz (ElDiario.es)**

## Laugarren boterea (txiste bat)



**Gorka Bereziartua Mitxelena**  
@boligorria

Bi gauza gutxienez klaro daude politikari batek kazetariaren galderari erantzuten dionean irribarre eginez eta “asko eskertzen dizut hori galdetzea” esanez: 1) politikaria sentitzen dela hamakan etzanda purua erretzen bezain erlaxatuta eta beraz 2) kazetaria ez dela bere lana ondo egiten ari. Baina gutxienez posizioak argi daude eta galdera egiten duena mahaiaren alde batean dago, erantzun behar duena bestean. Beste gauza bat da Kataluniako independentzia prozesua, zeinean Espainiako hedabide askok erabaki duten dauden lekutik altxatzea, jartzea euren Gobernuo politikariaren atzean, eta gorbatadunei masajeak ematea enpeinu guztiarekin, egun gogor baten ondoren etxera iritsi daitezen zerbikaletako minik gabe –eta, batek daki, agian happy end bat disfrutatuta–.

Badu txungurra komentatzeak non entzun den Carmen Martínez Castoren adierazpen hau, alegia, FAPE kazetariaren elkarteak La Caixarekin batera antolatutako jardunaldi batean. Gobernua, medioak eta banka. Polizia bat falta zen, horrekin poker, baina ez du posible izan, justu aste honetan plana egina zeukalako zure amona ostiatzera joateko.

Eta orain txiste bat kontatuko dugu, batere graziarik ez egiteko arriskua asumituz: Genovako mafiak txalotzen dituen komunikabide horiek dira, gaur goizean gosaltzen ari zaren bitartean, euskaldunen iturri nagusia zer pasatzen den jakiteko. Mmm, ez, definitiboki ez dauka graziarik: zeren agian ez gara pelikulaz ondoegei enteratzen ari, enteratzeko aukeratu ditugun mezulariak dabiltzalako, kaxarroa sutu beharrean, gezurrak kontaktzen eta erdi-egiak. Eskerrak hedabide batzuk kontsumitzeko ohitura tabakoa bezala dela. Nahi dugunean utzi dezakegu. ■

